

EDITORIAL

Ehiziaz atsegin ez duguna

«Ehizatzea da hegan egiteari arima kentzea. Ehizatzea da barez egitea sufritzen ikusteagatik soilik.» (Jesus Guridi: Sei haurkanta.)

Ez dugu atsegin inork txoriak hiltzea. Indartsuenek soilik bizirik jarraitzen duteneko berezko hautaketa ez delako. Ez da ez berezkoa ez artifiziala, hautaketa ere ez da: sarraskia da. Eta ez dugu nahi txoririk gabe utz gaitzaten, denonak bait dira, eta nire zerbait ere.

Ez ditugu atsegin ehizitokiak. Direnagatik eta esan nahi dutenagatik: mendira kotxez heltzeko era bat, inolako ahaleginik gabe. Mendia apurtzen duten pistak eta kutsadura. Goiz osoa zelatariarena egiten pasatzen duen jendea, hotzak hilik eta lurrean zehar hondakinak utziz aldegiten duena: potoak, botilak, zigarrokinak eta batez ere kartutxoak, urte osorako oraigarri bezala edo han bertan gelditzen diren kartutxo pilaok. M. Trésaricq-ek, Leskuneko alkatea bera, zioenez: «Egia da hamar udatarrek ehiztari bakar batek baino gutxiago zikintzen dutela».

Ez ditugu atsegin aspertzen diren ehiztariak, lelokeria asko egin bait dezakete: Moako hilobiaren seinalizazio-plaka datorkit burura, Urdelarreko mendatean, balatxo zeharo zulatua. Ehizitokitatik igarotzean Luisen mendekua gogoratzen dut, usategiak komuna bezala erabiltzen bait ditu.

Ez ditugu atsegin berotzen diren ehiztariak. Batzu, historiko jartzen dira eta arriskutsuak gerta daitezke. Joan den urtean Trabakuan Eibarko ekologistekin perdigoikada hutsen ibili zirenak, kasu. Edonola, eskopeta gehiegi izaten da zoroen eskuetan eta Jose Felix eta bere lagunei gertatu zitzaiena ere gerta dakizuke zuri: Oltzatik pasiatzen ari zirela, berehala «lurrera, lurrera» ohiuak entzun eta denbora justua izan zuten lurreratze eta une hartan aireratzten ari zen uso mordo bati zuzenduriko tirokada arrasante batetik baztertzeko.

.....

Gauza asko egin beharra dago ehizia behin betiko debekatzeko erreferendumerako deialdia, Italian bezala, proposatu baino lehen. Adibidez: salatu jakinaren gainean, esigitu ehiziaren legeko arauketaren minimoak bete daitezten, lortu animalien egoeraren ikerketa posibilitatuko lukeen ehizi gabeko epea, esigitu baimenen eskurapen eta berriztapen-erako derrigorrezko ehizi-azterketa, ugaldu baso-zaintzagizonak... Eta, zer esanik ez, galde diezaiozun gure buruari giza-semeak animalien bizitzaz bere gustora erabaki ahal izateaz, debekatzen ez diotena hil erazteko duen eskubidea. Eta elkartu egin gaitezen ideia zabaltzeko. Bultza ditzagun besteak gure sinestean parte hartzera, beste pertsona bakezale horien laguntza lortuz, pertsona sentikorrena, ekologiarren aldekoak, zuzenak, natura, bizitza, mendi, animalia, arrainen maitaleak.

Lo que no nos gusta de la caza

«Cazar es robar el alma a volar. Cazar es reir sólo por ver sufrir.» (Jesús Guridi: Seis Canciones Infantiles.)

No nos gusta que maten a los pájaros. Porque no es una selección natural en la que sobreviven los más fuertes. Ni es natural ni artificial, ni siquiera es una selección: es un exterminio. Y no queremos que nos dejen sin pájaros, que es algo de todos, que también es algo mío.

No nos gustan los puestos de caza. Por lo que son y por lo que representan: una forma de llegar en automóvil hasta el collado, sin ningún esfuerzo. Pistas rompiendo el monte y contaminación. Gente que se pasa la mañana haciendo de centinela, chupando frío y que se marcha dejando restos por el suelo: latas, botellas, colillas, y sobre todo cartuchos, montones de cartuchos que quedan allí de recuerdo durante todo el año. Como decía M. Trésaricq, el alcalde de Lescun: «Es verdad que diez veraneantes contaminan menos que un solo cazador».

No nos gustan los cazadores que se aburren y pueden hacer muchas tonterías: recuerdo la placa de señalización del túmulo de Moa, en el collado de Urdelar, completamente acribillada de balines. Al pasar por los puestos de caza me suelo acordar de la venganza de Luis, que utiliza las palomeras como excusado.

No nos gustan los cazadores que se excitan. Hay algunos que se ponen histéricos y pueden ser peligrosos. Como los que se liaron el año pasado a perdigonadas en Trabakua con los ecologistas de Eibar. En cualquier caso hay demasiadas escopetas en manos de irresponsables y te puede pasar como a Jose Félix y sus amigos que, paseando por Oltza, oyeron de repente gritos de «Al suelo, al suelo», y tuvieron tiempo justo para tumbarse y esquivar una ráfaga de disparos rasantes dirigidos a una bandada de palomas que despegabá.

.....

Hay muchas cosas que hacer antes de proponer, como en Italia que se convoque un referéndum para abolir la caza. Por ejemplo, denunciar con conocimiento de causa, exigir el cumplimiento de los mínimos de la Reglamentación legal de la caza, conseguir una moratoria de caza que posibilite el estudio de la situación faunística, exigir un examen de caza obligatorio para la obtención y renovación de licencias, pedir el refuerzo del guarderío... Y, desde luego, cuestionémonos el paradigma de que el hombre puede disponer a su capricho de la vida de los animales, de que tiene derecho a matar lo que no le prohíben. Y cooperemos en extender la idea. Hagamos participar a los demás en nuestra convicción, consiguiendo la colaboración de las otras personas pacíficas, sensibles, ecólogas, justas, amantes de la naturaleza, de la vida, del monte, de los animales, de los peces.